IURRETA ELEIZATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LA ANTEIGLESIA DE IURRETA
2018 IRA 17
SARRERA | IRTEERA
Zkia. Nº 3470
Zkia. Nº
ENTRADA | SALIDA

DOCUMENTO TÉCNICO



# PLAN DE PARTICIPACIÓN DEL PGOU DE IURRETA

arrutiark scp

SEPTIEMBRE 2018

DOCUMENTO TÉCNICO

# PLAN DE PARTICIPACIÓN DEL PGOU DE IURRETA






# INDICE

1. OBJETIVOS Y MECANISMOS
2. PROGRAMA DE PARTICIPACIÓN
   - Fase 1: Estudios Previos
   - Fase 2: Redacción del Preavance
   - Fase 3: Participación del Avance
   - Fase 4: Elaboración del PGOU.
   - Fase 5: Divulgación del PGOU. Participación del documento Aprobación Inicial
   - Fase 6: Elaboración del Documento PGOU Aprobación Provisional
   - Fase 7: PGOU Aprobación Definitiva

Lo que se expone a continuación es una propuesta de trabajo que requiere la aprobación municipal. Intenta ser lo más exhaustivo posible, pero está sometido a su revisión.

## 1 OBJETIVOS Y MECANISMOS

El principal objetivo del Plan de participación es dotar de los mecanismos necesarios de forma estructurada para el ejercicio real y efectivo de la misma; y el cumplimiento de los principios legales de participación e información. Para ello deben articularse una serie de acciones; que quedarán recogidas en un programa a desarrollar en las diferentes fases del proyecto. La organización temporal de las acciones del Plan de Participación están ligadas a las fases de redacción del PGOU, y en todas ellas se establecerá un mecanismo de información-participación por medio de consultas, debates, entrevistas.

Los mecanismos articulados en el Programa de participación deben permitir cumplir los siguientes objetivos del Plan:

a) Instrumentar un marco eficaz que haga posible el ejercicio efectivo del derecho de participación en la elaboración del planeamiento, favoreciendo, por tanto, la participación efectiva.

b) Transmitir a la Administración directamente las inquietudes y necesidades de la ciudadanía en materia de urbanismo y los objetivos que se quieren alcanzar a través del mismo.

c) Teniendo en cuenta la estrecha relación existente entre la participación y la democracia, tratar de conseguir una mayor calidad democrática en la toma de decisiones.

d) Procurar un nuevo modelo de desarrollo, más cohesionado, que favorezca la sostenibilidad responsable.

e) Contribuir a una resolución más eficaz de los problemas y prevenir conflictos futuros.

f) Facilitar que los intereses de la ciudadanía sean tenidos en cuenta corrigiendo tendencias burocráticas.

g) Comprender mejor y proporcionar mayor legitimidad a las decisiones que se adopten.

h) Establecer un equilibrio entre la apertura a la participación lo más amplia posible y una estructura eficiente y efectiva para la toma de decisiones.

El proceso de participación ciudadana propuesto en este programa ha de consistir en:

- Informar y formar a la ciudadanía en los conceptos básicos de la ordenación del territorio y la ordenación urbanística.
- Organizar el esquema completo de los diversos niveles de participación ciudadana.

- Preparar los contenidos y materiales para las diferentes actividades de participación según las fases temporales.
- Organizar, recoger e informar las conclusiones de las sesiones de trabajo para su análisis y consideración en primera instancia por el Equipo Redactor y la Corporación Municipal.
- Elaborar un resumen de los contenidos de todo el proceso de participación ciudadana, desglosado en las fases establecidas para la redacción del PGOU.
- Elaborar los contenidos precisos para la difusión y comunicación del contenido del avance y del propio plan general, para facilitar en los periodos de información pública la comprensión de los respectivos documentos urbanísticos por la ciudadanía.
- Asistir in situ en los locales organizados por el Ayuntamiento para la exposición pública del Avance y del PGOU, a fin de atender las consultas que se soliciten por la ciudadanía en relación con el contenido de la documentación expuesta al público.

Se habilitarán mecanismos activados en la fase de estudios previos y avance, aprobación inicial, provisional y definitiva del Plan que estarán dirigidos a instrumentar las posibilidades de participación ciudadana y obtener un modelo de ciudad más cohesionado. En este sentido se hace necesario tener en cuenta otros procesos de participación que tengan como objetivo el municipio.

La coordinación con otras Administraciones se realizarán en el marco del cumplimento de los trámites de consulta e informes exigidos por la Ley 2/2006, por ello los mecanismos más eficientes se concretan en la celebración de reuniones para la aclaración de posibles dudas.

El programa de participación que se presenta aprovecha todo el bagaje de cultura participativa del municipio para canalizar las aportaciones a la sociedad civil al proceso de revisión del Plan General. En el programa de participación se recogerá la voz: de los grupos políticos, del personal técnico y de la ciudadanía individual y organizada, ya que resulta fundamental la participación y aportaciones de todas las sensibilidades del municipio, para la consecución de un planeamiento general que responda a las necesidades de las y los habitantes de Iurreta.

Las herramientas de participación son diversas pero se clasifican en dos tipos fundamentales:

- De entrega y recogida de información. Información pública impresa como cartas, posters, folletos, boletines etc. Técnicas de internet, encuestas y sondeos.
- Otras de carácter interactivo como: Eventos informativos, Visitas Técnicas, Grupos de trabajo, talleres, Conferencias, etc.

Para organizar la participación ciudadana se proponen tres canales fundamentales:

- Trámites de información pública.
- Charlas informativas-formativas. Página web del Ayuntamiento.
- Talleres/grupos.

Aunque no se ha establecido como canal de participación, podemos decir que los medios de comunicación serán utilizados en momentos puntuales del proceso y pueden ser considerados el cuarto canal de comunicación.

LOS TRÁMITES DE INFORMACIÓN PÚBLICA son los habituales, a tenor de la legislación vigente.

LA PÁGINA WEB recogerá toda la información disponible y mantendrá actualizado un calendario con la situación del planeamiento y la fase de ejecución de los trabajos. Además, servirá para albergar los foros creados al efecto.

La creación de grupos de trabajo y de los TALLERES URBANÍSTICOS permitirá tener un conocimiento más exhaustivo de los problemas urbanos existentes en el municipio, conocer la percepción de los espacios públicos y del uso que de ellos realizan diversos grupos sociales, niñas y niños, mujeres o personas de avanzada edad y al mismo tiempo permitir una participación más directa de cada grupo humano en problemas de su entorno inmediato.

Los grupos de trabajo se dividirán para analizar los diferentes ámbitos en los que debe regirse.

Los talleres urbanísticos se plantean en cada una de las fases en las que se divide el proceso de redacción del planeamiento general, y en cada uno se tratarán diversos temas y en un nivel de concreción adecuado a la fase en la que se realice. Los sectores poblacionales a los que se dirigen preferentemente los talleres son: infanto-adolescente, juventud, mujeres, personas mayores, grupos de personas con diversidad funcional, grupos empresariales (industria, comercio, hostelería) y grupos de personas afectadas.

Los grupos no deberán ser superiores a 15 personas en caso de superar dicha cifra el equipo redactor propondrá al ayuntamiento criterios para efectuar la selección o el desdoblamiento del grupo. Estos actuarán a través de sesiones de trabajo coordinadas por miembros del equipo redactor. Las sesiones de trabajo comenzarán con el envío previo de la documentación precisa para entablar la posterior reflexión y debate. Finalizada la sesión se entregará un pequeño documento conteniendo las conclusiones de la sesión de trabajo y un cuestionario de satisfacción relativo a la organización, información y aprovechamiento de la sesión de trabajo. Con esta información el equipo redactor pasará un informe a la corporación.

Se habilitarán sesiones informativas-formativas para los grupos políticos.

## 2 PROGRAMA DE PARTICIPACIÓN

El presente programa de participación recoge los mecanismos propuestos para las diferentes fases de la elaboración del PGOU.

Los mecanismos establecidos para cada una de las fases son:

### FASE 1: ESTUDIOS PREVIOS o DIAGNÓSTICO

| | |
|---|---|
| **Puesta en marcha del PGOU**, comunicación de la puesta en marcha del proceso y divulgación de las fases del trabajo y del proceso de participación | • Comunicación a la prensa<br>• Espacio en la página web del Ayuntamiento para recepción de información y exposición de información<br>• Realización de una charla informativa abierta a toda la población. “¿Qué es un Plan General? ¿Para quién y para qué se redacta?” SESIÓN Nº1 |
| | • Presentación del PGOU a las y los Concejales. |
| | • El equipo redactor del Plan elaborará un borrador del “Programa de Participación ciudadana para la revisión del PGOU” |
| | • Mesa de trabajo con el personal técnico municipal. |
| | • Reunión formativa informativa grupos políticos |
| | • Aprobación del Plan de Participación |
| | • Socialización del plan de participación. |
| | • Recogida de información existente. |
| | • Base de datos de asociaciones y personas interesadas. |
| | • Reunión grupos políticos: exposición del diagnóstico. |
| | • Realización de una charla informativa abierta a toda la población. “Situación Actual del Municipio”<br>SESIÓN Nº2 |

| | |
|---|---|
| | • Colocación de una CARPA en el espacio público que el Ayto designe para recabar con la población los aspectos más relevantes del PGOU. SESIÓN Nº3 |
| | • Elaboración y difusión de material divulgativo.<br>• Elaboración informe de participación. |
| | • Redactar el informe de síntesis del Proceso de participación ciudadana (PPC). |

Contenido de las acciones representativas:

**Díptico explicativo**: El contenido versará sobre que es un PGOU, los mecanismos de participación existentes y las fases de tramitación.

**Charla informativa**: Participará personal del equipo redactor. Se realizará en dependencias municipales en horario a determinar y serán publicitadas mediante buzoneo, y dentro del programa de participación municipal. A la finalización se entregará un documento con lo tratado. Este documento se entregará para que sea colgado en la página web del ayuntamiento. Los ponentes serán los arquitectos Federico Arruti y Oihana Arruti. En caso de ser necesario, los abogados Joseba de Beristain y Ibane Beristain, o algún representante de la empresa Ingubide asistirán a la charla.

SESIÓN Nº1 "¿Qué es un Plan General? ¿Para quién y para qué se redacta?"

SESIÓN Nº2 "Situación Actual del Municipio"

**Redacción del borrador del Programa de Participación ciudadana**: Este borrador deberá ser consensuado con la corporación municipal, y el personal técnico municipal; para que pueda ser aprobado en Pleno Municipal y publicado en el BOB.

**Mesa de trabajo**: Mediante una reunión de trabajo con el personal técnico municipal se procederá a la identificación de posibles problemáticas en el desarrollo del Plan. Todo ello será consensuado con el área técnica de participación ciudadana del ayuntamiento.

**Reunión formativa-informativa grupos políticos:** en la reunión se explicará las fases y trámites de un plan de participación, así como se dará a conocer el borrador del Plan de Participación**.**

**Aprobación del Plan de Participación:** por la Corporación Municipal.

**Socialización del plan de participación**: El objetivo es dar a conocer el Plan de participación de forma divulgativa, para ello se utilizarán los siguientes mecanismos: comunicación de prensa, espacio en la página web de ayuntamiento, email a asociaciones.

**Recogida de información existente**: Recogida de información y opiniones generadas con el objetivo del plan, pero fuera del urbanismo, Agenda 21, etc.

**Informe:** Con toda la información recogida en esta fase se procederá a realizar un informe con la actuación realizada y una base de datos de todas personas/organizaciones relevantes en el municipio. Todo el contenido del informe será contrastado con el personal técnico municipal.

La **base de datos** contendrá los siguientes campos: nombre de la entidad, ámbito de actuación, dirección postal, email, tlf, observaciones (anotaciones sobre diferentes aspectos).

**Elaborar material divulgativo**: Powerpoint de presentación; en él se identificarán las zonas de intervención y los elementos generales.

**Difusión:** página web municipal, ciudadanía, vía email asociaciones

**Redactar un informe** con la información recogida que será cotejado con la Corporación.

**Carpa de participación Abierta**. Cuestionario estructurado y espacio de información en una carpa del espacio público.

## FASE 2: PARTICIPACIÓN PREAVANCE

| | |
|---|---|
| Redacción del Preavance | • Realización de un taller urbanístico temático: medio ambiente, espacio público, movilidad, vivienda y equipamiento público. (Taller Nº1)<br>• Cursar invitación al conjunto de la ciudadanía y en especial a las asociaciones.<br>• Realización de un Taller de urbanismo inclusivo: Mujeres/ Las calles tienen género. (Taller Nº2)<br>• Realización de un informe con el resumen de los talleres.<br>• Proceso de Participación Ciudadana del Preavance.<br>• Redactar informe síntesis del Proceso de Participación Ciudadana y exposición al Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, con su correspondiente informe de conclusiones |

**Material divulgativo**: con el contenido del Preavance.

**Difusión**: establecer un programa de divulgación de la información: rueda de prensa, email…

**Reuniones de grupo y talleres**: Recabar información sobre la opiniones y sugerencias de diferentes colectivos., para ello se realizarán:

- Taller Urbanístico temático (Taller Nº1) Análisis de la situación actual del medio ambiente, el espacio público, la movilidad, la vivienda y los equipamientos.
- Realización de un Taller de urbanismo inclusivo (Taller Nº2): Mujeres/Las calles tienen género. Diagnóstico de los espacios urbanos que son percibidos como inseguros.

## FASE 3: PARTICIPACIÓN DEL AVANCE

| | |
|---|---|
| Desarrollo de la Fase de exposición | • Realización de talleres urbanísticos temáticos: medio ambiente y espacio público, movilidad y vivienda y equipamiento público.<br>• Recabar soluciones con base de partida con las 3 propuestas del Avance.<br>• Proceso de Participación Ciudadana del Avance.<br>• Sesiones públicas en las que se expongan los tres modelos de crecimiento propuestos.<br>• Asistencia técnica en el Ayuntamiento de 1 vez por semana en el periodo de exposición pública.<br>• Plazo de presentación de sugerencias y alternativas. Recepción vía telemática y registro municipal.<br>• Informe del Equipo Redactor a las sugerencias y alternativas presentadas, informe a la Corporación Municipal (1 mes), resultado del Programa de Participación Ciudadana en esta fase y respuesta a los Aytos. Colindantes.<br>• Sesión con el Consejo Asesor de Planeamiento y redacción del informe de conclusiones.<br>• Información de los Criterios y objetivos marcados. Notificar las respuestas a las sugerencias presentadas. |
| | • Difusión del material divulgativo<br>• Exposición al público<br>• Reuniones de grupo<br>• Recogida de opiniones a través de encuesta en la página web. |
| | • Plazo de presentación de sugerencias y de alternativas y alegaciones<br>• Reunión grupos políticos<br>• Contestación alegaciones |

**Difusión del material divulgativo**: Será difundido vía email, página web del ayuntamiento y vía email asociaciones.

**Reuniones de grupo**: Recabar información sobre la opiniones y sugerencias de diferentes colectivos., para ello se realizarán:

- Taller Urbanístico Nº 1 Medio Ambiente y espacio público, grupos heterogéneos de diferente formación, nivel de estudios y edades.

- Taller Urbanístico Nº 2. Movilidad, vivienda y equipamiento público.

Además se realizará un folleto informativo con el contenido del Avance, se darán charlas explicativas y se realizará la participación ciudadana que corresponde.

Los talleres se agruparán en función de la asistencia que se prevea.

**Reunión grupos políticos**. Presentación del documento

**Exposición pública** del Avance durante dos meses con material divulgativo escrito y gráfico. Se elaborará un díptico que recoja la información más importante (redacción y maquetación por cuenta del Equipo de redacción, impresión y distribución por parte del Ayuntamiento). Se realizará en los locales habitados por el Ayuntamiento. La exposición constará de paneles informativos. Los miembros del Equipo Redactor permanecerán en la exposición semanalmente según se acuerde en calendario con el Ayuntamiento para atender individualmente a las/los habitantes que lo soliciten con cita previa gestionada por el Ayuntamiento.

Una sesión abierta al público en general para presentación del Avance, asistidos por el equipo redactor

Elaboración de material divulgativo en soporte informático con los programas de mayor difusión. Esta información se colgará en la web

Elaboración de una **encuesta** sobre los aspectos más relevante del contenido del avance. Esta encuesta será colgada en la página web y repartida en la exposición. El equipo redactor emitirá un informe de los resultados recogidos.

**Recogida de sugerencias o alegaciones** Durante el periodo de exposición pública se recogerán en el registro general del Ayuntamiento las sugerencias al documento de Avance**.**

**Contestación a las sugerencias**. El equipo redactor, dará contestación individualizada a las sugerencias presentadas.

## FASE4: ELABORACIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA

| | |
|---|---|
| Elaboración del Plan General de Ordenación Urbana | • Notificación de las respuestas a las personas que han realizado sugerencias<br>• Informe resumen<br>• Preparar el programa de difusión<br>• Realización de 2 talleres urbanísticos temáticos: medio ambiente y espacio público, movilidad y vivienda y equipamiento público. |

Informe resumen de lo acontecido en las fases avance y preavance, desde el número de visitas a la exposición pública, la información de las encuestas, de las entrevistas, de las conclusiones de los grupos y las sugerencias. En el apartado de sugerencias, explicación del contenido relativo a la aceptación o rechazo de dichas alegaciones y sugerencias, tanto del equipo redactor como de la Corporación Municipal.

En función del posicionamiento el Ayuntamiento, aprobará los Criterios y Objetivos que han de servir de base para la redacción del PGOU de Iurreta.

**Reuniones de grupo**: Recabar información sobre la opiniones y sugerencias de diferentes colectivos., para ello se realizarán:

- Taller Urbanístico  Análisis de diversas alternativas (fundamentadas en los criterios y objetivos generales). Consensuar un modelo de crecimiento.

## FASE 5: APROBACIÓN INICIAL.

| | |
|---|---|
| Tramitación administrativa y participación ciudadana sobre el contenido del Plan General<br>( Documento para la Aprobación Inicial) | • Preparación de información divulgativa sobre el Plan General<br>• Realizar la difusión |
| | • Exposición al publico<br>• Asistencia técnica |

**Material divulgativo**: Se realizará un documento del Plan General indicando las fases ya superadas, el recorrido que queda hasta la aprobación definitiva, las propuestas principales y los cambios introducidos con respecto del avance, haciendo hincapié en los derivados de la participación ciudadana.

**Exposición al público.** Apertura de un espacio durante un plazo mínimo de mes y medio para que el vecindario del municipio conozca el PGOU.

**Charlas** Realización de **1 o 2 sesiones** de explicación pública del Plan General con el material y en los locales que estime oportuno proporcionar la Corporación. En las sesiones acudirá el director del proyecto un representante del equipo redactor de cada una de las áreas, asesor jurídico y ambiental.

**Asistencia técnica** por parte del Equipo Redactor a la exposición del documento del Plan General semanalmente durante la exposición pública para atender de manera individualizada a quien lo solicite mediante cita previa.

Redactar informes individualizados a las alegaciones, informe de síntesis del desarrollo del Programa de participación ciudadana en esta fase y sus conclusiones.

## FASE 6: APROBACIÓN PROVISIONAL

Finalizado el plazo de exposición pública tras la aprobación inicial del Plan General y una vez que el Equipo Redactor tenga todas las alegaciones recibidas emitirá un informe individual sobre el contenido de las alegaciones presentadas y redactara un informe de síntesis sobre el proceso de participación ciudadana. Este informe contendrá las principales incidencias detectadas en las sesiones de exposición al público, los grupos que han participado y toda la información relevante relativa a la participación.

## FASE 7: APROBACIÓN DEFINITIVA

En esta etapa el equipo redactor en relación al tema de la participación suministrará información del estado de tramitación del Plan General para ser colgada en la página web y notificará vía telemática a las personas interesadas las novedades.

En esta fase se elaborará un documento divulgativo del documento completo del Plan General y se procederá a poner en marcha el programa de difusión del plan general, que se articulará en las siguientes tareas:

- Una jornada de difusión abierta estando como ponentes la Corporación y el Equipo Redactor
- Elaboración de un documento divulgativo para colgar en la página web
- Elaboración de un tríptico con la información más relevante.

El equipo redactor colaborará con la Corporación al objeto de suministrar toda la información gráfica y escrita que sea precisa para que realice una edición en papel de un tríptico, díptico y/o carteles informativos y explicativos de los contenidos más relevantes de todas las fases del proceso. Los gastos de imprenta de la edición en papel de los diferentes soportes serán de cargo del Ayuntamiento de Iurreta, así como los gastos de la campaña de prensa escrita, radio y en su caso televisión local que se estime oportuno elaborar para difundir las fases y el Plan General. La maquetación, los contenidos y el asesoramiento sobre la difusión del proyecto están incluidos en la propuesta de trabajo aquí recogida, por lo que correrán a cargo del Equipo Redactor.

## RESUMEN DEL PROCESO PARTICIPATIVO

| Fases / Cauces Participación | Fase1 Estudios Previos | Fase 2 Preavance | Fase 3 Avance | Fase 4 Plan General | Fase 5 Aprobación Inicial | Fase 6 Aprobación Provisional | Fase 7 Aprobación Definitiva |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Mesas de trabajo** | Determinación agentes claves. | | | | | | |
| **Grupos de trabajo** | Información del Preavance y debate.<br>Colocación de la carpa. Sesión Nº3 | Talleres:<br>Informativos, urbanismo con perspectiva de género | Información del avance y debate de alternativas<br>Talleres informativos. | Talleres informativos. | Socialización del PGOU y debate | | |
| **Exposiciones Públicas** | | | Del Avance<br>Plazo de presentación sugerencias | | Del PGOU.<br>Presentación alegaciones | | |
| **Página web**<br>**Envío telemático de info.** | Comunicación puesta en marcha del PGOU.<br>Socialización del Plan de Participación.<br>Información del Preavance y debate | | Información del avance y debate de alternativas.<br>Plazo de presentación sugerencias | Información tramitación PGOU | Información del PGOU.<br>Presentación alegaciones | Información de novedades. | Publicación PGOU definitivo.<br>Socialización PGOU. |
| **Rueda Prensa** | Comunicación puesta en marcha del PGOU<br>Socialización del Plan de Participación.<br>Información Preavance y debate | | Inicio del periodo de exposición pública del Avance | | | | |
| **Diptico-Tríptico** | Explicación del proceso PGOU | | Del Avance | | Contenido relevante del PGOU | | Resultado PGOU |
| **Charlas Informativas** | Explicación del proceso PGOU Nº1<br>Situación municipio Nº2 | | Exposición del avance | | Exposición del PGOU | | Resultado PGOU |

AGIRI TEKNIKOA



# IURRETAko HAPOaren PARTE-HARTZE PLANA

ArrutiArk s.c.p

2018KO IRAILA

# IURRETAKO HAPOaren PARTE-HARTZE PLANA

   

# AURKIBIDEA

1. HELBURUAK ETA MEKANISMOAK

2. PARTE-HARTZE PROGRAMA

   1. Fasea: Aurretiko lanak

   2. Fasea: Aitzin- aurrerakina.

   3. Fasea: Aurrerakinaren Parte- Hartzea.

   4. Fasea: HAPOa idaztea. Hasierako Onarpena

   5. Fasea: HAPOa Zabaltzea. Hasierako Onarpenerako agiriaren Parte-hartzea

   6. Fasea: HAPOa idaztea. Behin-behineko Onarpena

   7. Fasea: HAPOaren Behin-betiko Onarpena

Jarraian azaldutako lan-proposamenak udalaren onarpena behar du. Ahalik eta zehatzena izatea du helburu, berrikuspena zilegi den arren.

## 1 HELBURUAK ETA MEKANISMOAK

Parte-hartze Planaren helburua da, Plana bera modu erreal eta eraginkorrean gauzatu ahal izateko mekanismoez hornitzea, modu antolatuan, eta parte-hartze nahiz informazio printzipioak errespetatuz; helburu horrekin antolaturiko ekintza guztiak proiektuaren fase desberdinetan garatu beharreko programa batean jasoko dira. Parte-hartze Planari dagozkion ekintzen aldi baterako antolaketa lotuta dago HAPO idazteko faseekin; eta fase horietan guztietan, informaziorako eta parte-hartzerako zenbait mekanismo ezarriko dira, hala nola, kontsultak, eztabaidak, elkarrizketak...

Parte-hartze Programan jasotako mekanismoek, Planaren honako helburuak betetzea ahalbideratu behar dute:

a) Esparru eraginkorra antolatzea, plangintza garatzeko orduan parte-hartzerako eskubidea bermatu eta, ondorioz, parte-hartze efektiboa ahalbideratu dadin.

b) Administrazioari helaraztea, alde batetik, hirigintza arloan herritarrek izan ditzaketen kezka eta beharrizanak; eta bestetik, plan horren bidez erdietsi nahi diren helburuak.

c) Parte-hartzearen eta demokraziaren artean dagoen harreman estua ikusirik, erabakiak hartzeko orduan ahalik eta kalitate demokratiko handiena lortzea.

d) Garapen-eredu berri bat lortzea, bateratuagoa, eta iraunkortasun arduratsua ahalbideratzen duena.

e) Arazoak ahalik eta modu eraginkorrenean ebaztea, eta etorkizunean sor litezkeen gatazkak saihestea.

f) Burokraziarako joerak ekidinez, herritarren interesei lehentasuna ematea.

g) Hartutako erabakiak hobeto ulertzea, eta erabaki horiei are legezkotasun gehiago ematea.

h) Oreka bat ezartzea, parte-hartze ahalik eta zabalenaren, eta erabakiak hartzeko egitura eraginkor zein efizientearen arten.

Programa honetan proposaturiko Parte Hartze prozesuak ondoko esparruak landuko du::

- Lurralde antolamendu eta hirigintza antolamenduko oinarrizko kontzeptuak herritarrei zabaltzea, informazio eta formazioa lanarekin.
- Parte hartzeak dituen mailak jasotzen dituen eskema osoa antolatzea.
- Faseen araberako parte hartze ekintza desberdinetan erabili beharreko eduki eta materialak prestatzea.
- Lan saioetako ondorioak antolatu, jaso eta informatu, planaren idazle taldeak lehenik eta udalbatzak ondoren, aztertu eta kontutan har ditzaten.
- Parte-hartze prozesuan landutako edukien laburpena prestatzea, HAPOaren fase desberdinetan banatuta.
- Aurrerakinaren eta plana beraren edukiak zabaldu eta komunikatzeko beharrezkoak diren agiriak prestatzea, informazio publiko epeetan jendearen hirigintza agirien ulermena errazteko.

- Udalak zehaztutako lekuetan Aurreikuspena eta HAPOaren jendaurreko azalpenetara bertaratzea, informazio publikora zabaldutako edukien inguruan herritarrek izan ditzaketen kezka edo galderei erantzuteko..

Mekanismo horiek Planaren fase guztietan aplikatuko dira: aurre azterlanean eta aurrerapenean; hasierako onarpenean, behin-behinekoan, eta behin betikoan. Betiere, herritarren parte-hartzea sustatu eta herri-eredu bateratuagoa lortzeko helburuarekin. Zentzu horretan, nahitaezkoa da hiria helburu duten bestelako parte-hartze prozesuak ere kontuan hartzea.

Administrazioen arteko koordinazioa gauzatzeko orduan, 2/2006 Legeak xedatutako kontsulta-izapideak eta txostenak kontuan hartuko dira; horregatik, mekanismo eraginkorrenak lirateke, bilerak egitea, eta parte-hartze foro desberdinetara dagozkion erakundeak gonbidatzea, sor litezkeen zalantza guztiak argitu aldera.

Parte-hartze programak ahalik eta gehien aprobetxatzen du udalerrian dagoen parte-hartze kultura; modu horretara, gizarte zibilak ere ekarpenak egin dakizkioke Plan Orokorraren berrikuspen-prozesuari. Parte-hartze programaren bidez honakoen ahotsa jasoko da: talde politikoak, teknikariak, eta herritarrak, hala norbanakoak nola elkarteak; izan ere, guztiz garrantzitsua da udalerriko sentsibilitate guztiek prozesuan parte hartu eta ekarpenak egitea, Iurretako herritar guztien beharrizanei erantzungo dien plangintza orokorra lortu ahal izateko.

Herritarrek Plan Orokorrean duten parte-hartzea antolatzeko, funtsezko bi bide erabiliko dira:

- Informazioa hartu eta ematekoak. Inprimatutako informazio publikoa: gutunak, posterrak, buletinak, etab. Internet teknikak eta inkestak.
- Izaera interaktiboa dutenak: Informazio saioak, bisita teknikoak, Talde lanak, tailerrak, hitzaldiak, etab.

Herritarren parte hartzea egituratzeko hiru bide proposatzen dira:

- Informazio publikoko izapideak.
- Formakuntza eta informazio hitzaldiak. Udaleko web orrialdea.
- Tailerrak/taldeak.

Web orrian jasoko da eskuragarri dagoen informazio guztia; era berean, etengabe eguneratzen den egutegia ere azalduko da bertan, plangintzaren unea zehaztuz eta lanen exekuzio-fasea azalduz.

Nahiz eta komunikazio bide bezala kontutan hartu ez, Komunikabideei dagokienez, prozesuaren une jakin batzuetan erabiliko direla aipatu behar da.

INFORMAZIO PUBLIKO IZAPIDEAK ohikoak dira, indarrean dagoen legediak jasotzen dituenak.

WEB ORRIAn jasoko da eskuragarri dagoen informazio guztia; era berean, etengabe eguneratzen den egutegia ere azalduko da bertan, plangintzaren unea zehaztuz eta lanen exekuzio-fasea azalduz.

LANTALDEEN eta HIRIGINTZA TAILLERREN bidez hobeto ezagutu ahalko dira lurralde-eremu bakoitzean dauden herriko arazoak; espazio publikoaren eta bere erabileraren gizarte talde ezberdinek, haurrek, nerabeek, emakumezkoek eta adinekoek daukaten pertzepzioa eta era berean, giza-talde guztien parte-hartze zuzena ahalbideratu behar du, inguruneko arazoak ebazteko orduan.

Taldeak aztertu beharreko eremuen arabera sortuko dira.

Hirigintza tailerrak planteatzen dira planeamenduaren fase bakoitzean eta landutako gaiak eta zehaztasun maila, dagokion faseari egokituko zaizkio. Tailerrak nagusiki ondorengo gizarte taldeei bideratuta daude: haurtzaro-nerabezaro, gazteria, emakumezkoak, adineko pertsonak, funtzio aniztun pertsonak, enpresa taldeak ( industria, komertzioa, ostalaritza) eta interesa izan dezakeen beste edozein.

Talde bakoitza 15 lagunekoa izango da gehienez. Kopuru hori gaindituz gero, erredakzio-taldeak hautaketa bat egiteko edota taldea banatzeko irizpideak proposatuko dizkio udalari. Talde horiek lansaio bidez jardungo dute, eta erredakzio-taldeko kideren bat izango da koordinatzailea, betiere. Lansaioak gauzatu aurretik, hausnarketarako eta eztabaidarako beharrezkoak diren agiri guztiak bidaliko zaizkie parte-hartzaileei. Saioa bukatzean, lansaioan eztabaidatu diren gaien ondorioak jasotzen dituen dokumentu bat banatuko da, bai eta antolaketari, emandako informazioari eta lansaioaren aprobetxamenduari buruzko asebetetze-galdetegi bat ere. Informazio hori eskuan, erredakzio-taldeak txosten bat emango dio udalbatzari.

Talde politikoen kasuan, informazio eta prestakuntza saioak antolatuko dira.

## 2 PARTE-HARTZE PROGRAMA

Honako parte-hartze programan, HAPOren fase desberdinetan gauzatuko diren parte-hartze mekanismoak jaso dira.

Hauek dira fase bakoitzerako ezarri diren mekanismoak:

**1. FASEA: AURRETIKO LANAK edo DIAGNOSTIKOA**

| | |
|---|---|
| HAPO martxan jartzea, prozesua martxan jartzearen komunikazioa, laneko faseen eta parte-hartze prozesuaren jakinarazpena | • Prentsaurrekoa<br>• Udalaren web orriaren bidez informazioa jaso nahiz erakutsi<br>• Herritar guztiei zuzenduriko informazio-hitzaldi irekia " Zer da Plan Orokorra? Norentzat eta zertarako idazten da?".1. SAIOA |
| | • HAPOren aurkezpena zinegotziei. |
| | • Planaren erredakzio-taldeak "HAPO berrikusteko herritarren Parte-hartze Plana"-ren zirriborroa egingo du- |
| | • Udaleko teknikariekin lan-mahaia. |
| | • Prestakuntza-informazio bilera alderdi politikoekin |
| | • Parte-hartze Planaren onarpena |
| | • Parte-hartze Planaren sozializazioa. |
| | • Informazio-bilketa. |
| | • Elkarteen eta interesdunen datu-basea. |
| | • Alderdi politikoekin bilera: Egindako diagnostikoa azalduko zaie. |
| | • Herritar guztiei zuzenduriko informazio-hitzaldi irekia "Udalerriaren planeamendu aldetik, gaur eguneko egoera".2. SAIOA |
| | • Parte-hartze KARPA IREKIA. Egituratutako galdetegi eta informazio gunea jarriko da espazio publikoan.<br>3. SAIOA |
| | • Dibulgazio-materiala prestatzea<br>• Dibulgazio-material hori zabaltzea<br>• Parte-hartze txostena egitea. |
| | • Antolamenduko aholku batzordeak emandako txostena idaztea. |

Ekintza adierazgarrienen edukia

**Azalpen diptikoa**: Diptiko honen edukiaren bidez azalduko da zer den HAPO bat, zein diren eskura dauden parte-hartze mekanismoak, eta izapide-faseak.

**Informazio hitzaldia**: Erredakzio-taldeko langileek hartuko dute parte. Udalaren egoitzetan egingo dira, zehazten den ordutegian, eta gutunontzi bidez emango da jakitera, udalaren parte-hartze programaren baitan. Hitzaldiaren amaieran, saioan jorratu diren gai guztiak biltzen dituen agiri bat emango da. Agiri horretan jasotakoa udalaren webgunean jarriko da. Federico Arruti eta Oihana Arruti arkitektoak izango dira hizlariak. Beharrezkoa izanez gero, Joseba de Beristain eta Ibane Beristain abokatuak, edota Lantec-idema enpresako ordezkariren bat ere egongo dira saio horietan.

1. SAIOA “Zer da Plan Orokorra? Norentzat eta zertarako idazten da?”

2. SAIOA “Udalerriaren planeamendu aldetik, gaur eguneko egoera"

**Herritarren Parte-hartze Programaren zirriborroa idaztea:** Zirriborro hori udalbatzarekin, oposizioarekin, udal teknikariekin eta Aholku Batzordearekin adostu beharko da, Osoko Bilkuran dagokion onarpena eman eta BAOn argitaratu ahal izateko.

**Lan-mahaia**: Udaleko teknikariekin laneko bilera bat egingo da; horiekin elkarlanean, Planaren garapenean agertu daitezkeen arazoak identifikatuko dira. Hori guztia, herritarren parte-hartzerako udalaren arlo teknikoarekin bateratu eta adostuko da.

**Prestakuntza-informazio bilera alderdi politikoekin**: bilera horretan, parte-hartze planaren fase eta izapide guztiak azalduko dira; era berean, Parte-hartze Planaren zirriborroa ere aurkeztuko da.

**Parte-hartze Planaren onarpena**: udalbatzak.

**Parte-hartze Planaren sozializazioa**: Parte-hartze plana modu hezitzaile batean ezagutzera ematea da helburua; horretarako, honako mekanismoez baliatuko gara: prentsaurrekoa, udalaren web orria, eta elkarteei zuzenduriko emaila.

**Informazio-bilketa**: Planak sorrarazi dituen informazio eta iritzi guztiak jasoko dira, baina hirigintza, Agenda 21, eskolako Agenda 21, eta tokiko iraunkortasun-planetik at.

**Txostena**: Fase honetan bildutako informazio guztiarekin, txosten bat prestatuko da. Bertan jasoko dira, alde batetik, gauzatu den jardueraren azalpena, eta bestetik, udalerri mailan esanguratsuak diren pertsona eta erakunde guztien datu-basea. Txostenaren edukia udal teknikariekin kontrastatuko da.

**Datu-baseak** honako eremuak izango ditu: erakundearen izena, jarduera-esparrua, posta helbidea, emaila, telefono-zenbakia, eta oharrak (alde desberdinei buruzko oharrak)

**Dibulgazio-materiala egitea**: Aurkezpenerako powerpoint fitxategia.

**Zabalkundea**: Udalaren web orriaren bidez, herritarrei zuzenean, eta elkarteei emaila bidaliz.

**Parte-hartze karpa irekia.** Egituratutako galdetegi eta informazio gunea jarriko da espazio publikoan.

## 2. FASEA: AITZIN-AURRERAKINAREN PARTAIDETZA.

| | |
|---|---|
| Aitzin- aurrerakina idaztea | • Hirigintza gaiaren inguruko tailerraren dinamizazioa: ingurugiroa, gune publikoak, irisgarritasuna, etxebizitza eta hornidura publikoak. (1.Tailerra)<br>• Hiritar orori eta bereziki elkarteei gonbidapenak luzatu.<br>• Hirigintza Barneratzailea. Emakumeak/ Kaleek badute generoa (2.Tailerra)<br>• Tailerretan lortutako ondorioen balorazio txostena burutu.<br>• Hiritarren Partaidetza Ibilbidearen Lehen Aurreikuspena<br>• Hiritarren Partaidetza Ibilbidearen txostena idatzi eta berau Hirigintza Udal Batzordeari aurkeztu, ondorioen txostenarekin batera. |

**Dibulgazio-materiala**: Aurrerapenaren eduki bera izango du.

**Zabalkundea**: Informazioa zabaldu eta hedatzeko programa bat ezarriko da: prentsaurrekoa, emaila...

**Talde-bilerak**: Kolektibo desberdinen iritzi eta iradokizunei buruzko informazioa jasotzea; horretarako ondoko ekintzak antolatuko dira:

- Hirigintza gaiaren inguruko tailerraren dinamizazioa: ingurugiroa, gune publikoak, irisgarritasuna, etxebizitza eta hornidura publikoak. (1.Tailerra)
- Hirigintza Barneratzailea. Emakumeak/ Kaleek badute generoa (2.Tailerra)

**Alderdi politikoekin bilera. Jasotako informazioarekin laburpen txostena,** udal teknikariekin adostua.

## 3. FASEA: AURRERAKINAREN PARTE-HARTZEA

| | |
|---|---|
| Azalpen-fasearen garapena | • Hirigintza gaiaren inguruko tailerraren dinamizazioa: ingurugiroa, gune publikoak, irisgarritasuna, etxebizitza eta hornidura publikoak.<br>• Aurrerakin fasearen 3 proposamenak abiapuntu hartuz irtenbideak bildu<br>• Aurrerakin fasearen Hiritarren Partaidetza Ibilbidea burutu.<br>• Bilera publikoak non hiru hazkunde ereduen proposamenen aurkezpena egingo den.<br>• Aurkezpen publikoa burutzen den denboran laguntza teknikoa eskainiko da astean behin Udaletxean.<br>• Iradokizunen eta hautabide aurkezpenen epea. Erantzunak era telematikoan eta udal erregistroan/errolda bidez jasoko dira.<br>• Erredaktore Taldearen txostena iradokizunen eta hautabide aurkezpenak txertatuz, Udal Kontseiluaren txostena (hilabete 1 ), Hiritarren Partaidetza Ibilbidearen emaitzen aurkezpena eta emandako erantzuna, inguruko Udalekin partekatu.<br>• Plangintza Aholkularitza Kontseiluarekin bilera eta ondorioen txostena idatzi.<br>• Hitzartutako helburuen eta irizpideen informazioa zabaldu. Aurkeztutako iradokizunei erantzun. |
| | • Dibulgazio-materialaren zabalkundea<br>• Jendaurrean erakustea<br>• Talde-bilerak<br>• Iritziak-jasotzea, web orrian jarriko den galdetegi bidez. |
| | • Iradokizunak, proposamenak eta alegazioak aurkezteko epea.<br>• Alderdi politikoekin bilera.<br>• Alegazioei erantzuna. |

**Dibulgazio-materialaren zabalkundea**: Email bidez, udalaren web orriaren bidez, eta elkarteei bidalitako emailen bidez gauzatuko da.

**Talde-bilerak**: Kolektibo desberdinen iritzi eta iradokizunei buruzko informazioa jasotzea; horretarako ondoko ekintzak antolatuko dira:

- 1. Hirigintza Tailerra. Ingurumena eta espazio publikoa, formakuntza adin eta ikasketa desberdinetako jendearekin talde heterogeneoak gauzatuko dira.
- 2. Hirigintza Tailerra. Mugikortasuna, etxebizitza eta ekipamendu publikoa.

Aurrekoaz gain, aurrerakinaren edukiarekin esku-papera egingo da, azalpen hitzaldiak antolatuko dira eta faseari dagokion parte hartzea burutuko da.

**Alderdi politikoekin bilera**. Agiriaren aurkezpena.

Aurreikuspena **jendaurrean erakustea**, idatzizko nahiz irudi bidezko dibulgazio-materialarekin. Diptiko bat egingo da, informazio garrantzitsuenarekin (erredakzio-taldea arduratuko da idazketaz eta maketazioaz; inprimatu eta banatzea, ordea, Udalaren kontura izango da). Udalak berariaz prestaturiko lokaletan egingo da. Erakusketa horretan informazio-panelak jarriko dira. Erredakzio-taldeko kideak astero egongo dira erakusketan, udalak kudeatutako aurretiazko hitzordua eskatu duenari dagozkion azalpenak emateko. Udalak ezartzen duen egutegi eta ordutegia errespetatuz, betiere.

Aurrerapena aurkezteko, jendaurreko saio bat egingo da, herritar guztientzat. Erredakzio-taldeak hartuko du horren ardura.

Dibulgazio-materiala euskarri informatikoan egingo da, hedapen zabala duten programez baliatuz. Informazio hori web orrian jarriko da.

Aurrerapenaren eduki garrantzitsuenei buruzko **galdetegia** prestatuko da. Galdetegi hori web orrian jarriko da, eta erakusketara doazen herritarrei eskura emango zaie. Biltzen diren emaitzekin, erredakzio-taldeak txosten bat egingo du.

**Alegazioak jasotzea**

**Alegazioei erantzutea.**

## 4. FASEA: HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA EGITEA.

| | |
|---|---|
| Hiria Antolatzeko Plan Orokorra egitea | • Alegazioak aurkeztu dutenei erantzunak jakinaraztea<br>• Laburpen txostena<br>• Zabalkunde-programa prestatzea<br>• Hirigintza gaiaren inguruko tailerraren dinamizazioa: ingurugiroa, gune publikoak, irisgarritasuna, etxebizitza eta hornidura publikoak. |

Aurrerapen eta lehen aurreikuspen faseetan gertatutakoari buruzko laburpen txostena egingo da; bertan jasoko dira, besteak beste, jendaurreko erakustaldiak izandako bisita-kopurua, galdetegien bidez jasotako informazioa, elkarrizketen edukia, taldeen ondorioak eta alegazioak. Alegazioei dagokien atalean, alegazio eta iradokizunak onartu edota ukatzearen arrazoiak azalduko dira, bai erredakzio-taldearen aldetik, bai eskumena duen Udalaren aldetik.

Udalaren eritzien arabera, Iurretako HAPOa idazteko oinarri izango diren helburu eta irizpide orokorrak onartuko dira.

**Talde-bilerak**: Kolektibo desberdinen iritzi eta iradokizunei buruzko informazioa jasotzea; horretarako ondoko ekintzak antolatuko dira:

- . Hirigintza Tailerra. Aukera desberdinen azterketa ( helburu eta irizpide orokorretan oinarrituz). Hazkunde eredu bat adostu.

## 5. FASEA: HASIERAKO ONARPENA

| | |
|---|---|
| Plan Orokorraren edukiari buruzko Izapidetze Administratiboa eta herritarren parte-hartzea.<br>( Hasierako onarpenerako dokumentua) | • Plan Orokorrari buruzko dibulgazio-dokumentua prestatzea<br>• Zabalkundea gauzatzea |
| | • Jendaurrean erakustea<br>• Laguntza teknikoa |

**Dibulgazio-materiala**: Plan Orokorraren dokumentua egingo da, honakoak adieraziz: jadanik gainditu diren faseak, behin betiko onarpenera arte egiteko dagoen bidea, proposamen nagusiak, eta aurrerapenari egin zaizkion aldaketak. Herritarren parte-hartzetik eratorritako datuak modu berezian azpimarratuko dira.

**Jendaurreko erakustaldia**. Espazio jakin bat irekiko da, hilabete eta erdiz, herritarrek HAPOri buruzko informazioa eskura dezaten.

**Hitzaldiak**: Plan Orokorra azaltzeko, jendaurreko bat edo bi saio egingo dira, Udalbatzak egiteko horretara bideratzen dituen material eta lokalez baliatuz. Saio horietan parte hartuko dute: proiektuaren zuzendariak, eremu bakoitzaren erredakzio-taldeko ordezkari batek, aholkulari juridikoak, ingurumenekoak eta parte-hartzekoak.

Erredakzio-taldeak Plan Orokorraren dokumentuaren aurrean **laguntza teknikoa** eskainiko du, astero. Udalbatzak egingo du ordu horien banaketa.

Posta-helbide bat ahalbideratuko da, herritarrek dagozkion alegazioak helarazteko erredakzio-taldeari.

Alegazio bakoitza erantzuteko txostena, herritarren Parte-hartze Programaren garapena laburbiltzen duen txostena, eta ondorioei buruzko txostena idatzi beharko dira.

## 6. FASEA: BEHIN- BEHINEKO ONESPENA.

Jendaurreko erakustaldirako epea agortzen denean, Plan Orokorraren hasierako onespena egin ondoren, eta erredakzio-taldeak alegazio guztiak jaso eta gero, alegazio bakoitzaren inguruko ebazpen-txostena idatziko da, bai eta herritarren parte-hartze prozesua laburbiltzen duen bigarren txosten bat ere. Txosten horrek barne hartuko ditu: herritarren parte-hartze prozesuari buruzko informazioa, jendaurreko erakusketa-fasean detektatu diren gertaera nagusiak, parte hartu duten taldeak, eta parte-hartzeari buruzko informazio esanguratsua.

## 7. FASEA: BEHIN BETIKO ONESPENA

Etapa honetan, erredakzio-taldeak, Plan Orokorraren izapidetzeari buruzko informazioa emango du. Informazio hori web orrian jarriko da, eta berrikuntza guztiak telematikoki jakinaraziko zaizkie interesdunei.

Fase honetan, Plan Orokor osoari buruzko dibulgazio-dokumentua egingo da; era berean, Plan Orokorraren zabalkunde programa abiaraziko da, honako egitekoen bidez:

- Zabalkunde irekiko bi jardunaldi egingo dira; Udalbatza eta erredakzio-taldea izango dira hizlariak
- Dibulgazio-dokumentu bat egin, eta web orrian jarriko da.
- Informazio garrantzitsuena biltzen duen triptikoa egingo da.

Erredakzio-taldeak Udalbatzarekin lankidetzan jardungo du, triptikoan, diptikoan edo/eta informazio-karteletan jaso beharreko informazio grafikoa nahiz idatzizkoa zehatza izan dadin, eta prozesua osatzen duten fase guztietako eduki esanguratsuenak azaldu daitezen. Euskarri desberdinak paperean editatzeko beharrezkoak diren inprenta-gastuak Udalbatzaren kontura izango dira, bai eta komunikazio-kanpainari dagozkion gastuak ere, hala nola, prentsa, irrati edota tokiko telebistetatik eratorritako gastuak, baldin eta halakoak baliatzen badira bai faseak bai Plan Orokorra bera herritarren artean zabaltzeko. Maketazioa, edukiak eta proiektuaren zabalkundera bideraturiko aholkularitzagatiko gastuak, honako proposamenean jasota daude.

| Faseak / Parte-hartze bideak | 1. Fasea Aurretiazko lanak | 2. Fasea Aitzin-aurrerakina | 3. Fasea Aurrerakinaa | 4. Fasea Plan Orokorra | 5. Fasea Hasierako onarpena | 6. Fasea Behin-behineko onespena | 7. Fasea Behin betiko onespena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lan- mahaiak** | Agenteen sailkapena | | | | | | |
| **Lan taldeak** | Aurre Aurrerakinaren informazioa eta eztabaida.<br>3. SAIOA Karpa Irekia | Informazioa tailerrak, hirigintza tailerrak genero ikuspegiekin | Aurrerakinaren informazioa eta aukeren eztabaida.<br>Informazio Tailerrak. | Informazio Tailerrak. | HAPOaren sozializazioa eta eztabaida. | | |
| **Esposizio Publikoak** | | | AURRERAKINA<br>Iradokizunak aurkezteko epea. | | HAPOa.<br>Alegazioak aurkeztea | | |
| **Web orria**<br>**Informazioaren bidalketa informatikoa** | HAPOa martxan jartzeko komunikazioa.<br>Parte-hartze planaren sozializazioa<br>Aitzin Aurrerakinaren informazioa eta eztabaida. | | Aurrerakinaren informazioa eta aukeren eztabaida.<br>Iradokizunak aurkezteko epea. | HAPOaren informazio eta izapidetzea | HAPOaren informazioa.<br>Alegazioak aurkeztea | Berrikuntzen informazioa. | Behin betiko HAPOaren publikazioa.<br>HAPOaren sozializazioa. |
| **Prentsaurrekoa** | HAPOa martxan jartzeko komunikazioa.<br>Parte-hartze planaren sozializazioa<br>Aitzin Aurrerakinaren informazioa eta eztabaida. | | Aurrerakinaren esposizio publiko epearen hasiera. | | | | |
| **Diptiko-Triptikoa** | HAPOaren prozesuaren azalpena. | | Aurrerakina | | HAPOaren eduki garrantzitsuak. | | HAPOaren emaitza |
| **Hitzaldi Informatiboak** | 1. SAIOA "Zer da HAPOa?<br>2. SAIOA Udalerriaren egoera | | Aurrerakinaren esposizioa | | HAPOaren esposizioa | | HAPOaren emaitza |